

Nafarkaria

• ostirala • 2001eko otsailaren 23a

Egunkaria

Gehigarri honetan



Salvador Gutierrez • «Ni ere harritzen naiz hamalau mukizu nora heldu garen ohartzean»

Inaute garaia

Inauteriak aspaldi genituen ate joka. Azkenean, asteburu honetan bete-betea ospatuko dituzte Lantzen, Iruñean, Lizarran, Altsasun, Unanun, Beran, Lesakan eta Arizkunen, orriok. Baina Nafarroako beste hainbat tokitan ere badira. Itxuraldatzeko garaia da, gaizkiaren eta ongiaren arteko lehian parte hartzeko garaia, mamuak uxatzeko garaia, aspaldiko ohitura berriz ere gaurkotzeko tenorea. Hartu mozorroa eta atera kalera!



• OSKAR MONTERO



• JOXE LACALLE



• JOXE LACALLE

Inauteriak Nafarroan

Altsasu • Inauteri ikuskizuna

Momotxorroek asteartean zirikatuko dituzte altsasuarrak

Ez da Brasilgo Bahiakoa, ezta Kanariar uharteetakoa edo Veneziakoa ere. Baina bai Sakanako ihote jai jendetsuena eta ikusmin handien sortzen duena.

honetan. 18:00etan kalejira abiatuko da. Jira eta buelta ibili ondoren, txokolatada izanen dute txikienek arratsaldean. Jakina, moxorro dantza eta momotxorroen dantza txikian parte hartzeko irrikan izanen da ordurako bat baino gehiago.

Momotxorroen inauteria, edo herri inauteria, astearte ihote egunean ospatzen da. Jaia arratsaldean hasten da. 16:00etan ekiten diote auzoz auzo pusken biltzeari. Bildutakoarekin 18:00etan merienda egiten da udaletxe aurrealdean. Bertan ez da txistorrik, ez gaztarik ezta ardorik ere falta. Ederki meriendatu eta gero, momotxorroen inauteriko pertsonaiak pixkanaka-pixkanaka Zelandi pilotalekuan bilduko dira. Bertan biltzen dira Juan Tranposoak, maskaritarak, sorginak, akerra, eta,

jakina, momotxorroak beraiek ere. Ogi torradak jateko garaia da. Ondoren, frontoitik Foruen plazaraino kalejira ikusgarria bezain jendetsua izaten da. Momotxorro beldurgarriek sardeaz zirikatuko dute jendea plazara iritsi eta beraien dantza dantzatu aurretik. Ezkila errepikak eta suziriek ere jai giroa dela adieraziko dute. Gau partean Muganix taldeak dantzaldia eskainiko du.

Asteartekoa herri inauteria da, baina hurrengo larunbatean, martxoaren 3an, dagoeneko Garizuman murgilduak gaude-la, hiri inauteria edo piñata ospatuko da Altsasun. Goiz-goizetik koadrilak moxorrotuta ibiliko dira. Guztiak bilduko dituen kalejira izanen da 19:00etan, eta gero parranda nagusi.

→ Alfredo Alvaro Igoa



Altsasuarrak birritan ospatzen dituzte inauteriak. Momotxorroak asteartean aterako dira. • NAFARROAKO IHAUTERIAK

Unanu • Mamoxarro xirri xarro

Harrapatzen duten oro zigorraz berotuko dute asteartean mamoxarroek



Mamoxarroek aurpegia estaltzeko metalezko maskara darabilte, zaharrak bezain misterioitsuak.

NAFARROAKO IHAUTERIAK

IHOTE OSPAKIZUN BATZUK besteak baino ezagunagoak dira Sakanan. Beste zor zaien garrantzia kendu gabe, ezagunen artean ditugu Unanuko ihote fustigatzaileak; adituek diotenez, garai batean ernalkuntzarekin lotura zuketena. Bertako moxorroak, mamoxarroak, ederki dakite eskuetan daramaten makila edo zigorra erabiltzen.

Beriaingo malkor ikusgarriaren azpian, Ergoien haraneko Unanu herrian aspaldiko ohiturari ederki eusten jakin dute. Gerrak berak eta ondorengo gerrosteak ere ez zuen eten unanuarren ospakizunerako gogoia. Denboraren ilunean galtzen diren ihote ospakizunak igande eta asteartean arratsaldeko 16:00etatik aurrera izaten dira Unanun.

Mamoxarro txikien eguna da igandekoa. Asteartean helduek egiten dutena egiten dute 15 eta 17 urte bitarteko gaztetxo-

ek. Arratsaldean, moxorrotuak iriten dira. Normalean, zetazkoa den zapia daramate buruan, bai eta mauka luzeko kamiseta eta galtzontzilo luze zuriak ere. Gerriko gorri edo beltza. Sorbaldatik gerrira, zeharrian, larruzko koilare txintxariduna edo panpaxilduna eramaten dute mamoxarroek. Eta aurpegia estaltzeko, metalezko maskara darabilte. Zaharrak bezain misterioitsuak diren karatola hauen jatorriak aditu asko era-karri ditu Unanura. Mamoxarroak zirikatzeak kantua behin

eta berriz kantatzen da: *Mamoxarro xirri xarro / kateriako zapi-na / uzker opariko. Zata begigorri / urten behin etorri. Iluntze partean, Mamoxarroak puska biltzen hasten dira, eta gero, jasotakoarekin afari ederra egiten dute.*

Asteartea Mamoxarro handien eguna da Unanun. Baina mamoxarroez gain badira beste moxorrotu batzuk ere, Muttuak, nahi bezala moxorrotutako gazteak. Horrela esaten zaie panpaxilarik ez dutelako. Puska biltzeaz batera, mamoxarroek eskuetan daramaten zigorraz bidean topatzen duten edonor ederki berotuko dute, ziur egon. Jakina, ikusleek ederki zirikatuko dituzte lehen aipaturiko kantutxoarekin.

→ Alfredo Alvaro Igoa

ziutatea

ARITZ AGIRRE



Barkatu, otoi, aitortzen dut. Gazta marka famatu baten bitartez erdarakada galantaz baliatu naiz izenburua osatzeko. Titularra larru gorritan gaztelaniaz eratzea pentsatu eta, azkenik, euskara jantziari eutsi diot lege dekretu propioaren aginduz. Ez dira garai onak euskarari titularra ere galarazteko. (Bihar elkar ikusiko dugu manifestazioan).

Gaur, berriz, supermerkatuan kausitu dut irri egiten duen behia, atzeko apalean ezkatututa, txerrien saltxitxa eta fast food eskaintzen artean. Zigilu horrekin gazta zatiak saltzeko ere ez dira garai onak. Arras sinpatikoa da irri egiten duen behia, baina keinu espongiforme susmagarria islatzen du bere alaitasunak. Creutzfeld-Jakob jaunaren irribarre zoroa.

Irri egiten duen behia

Haatik, telebistako behi britainiarren mingainaz eta parkinson dantzaz jabetu orduko, gu gara zoraturako bakarrak eta sindromea harategietan hedatzearen errudunak. Edozein modutan, behi haragiaren salmentak nabarmen jaitsi arren, kontsumitzaileek ilara luzeak egiten dituzte harakinen protestaldietan zain, haragi xerrak oparitzen dituztenean. Antza, arriskurik eta sindromerik ez dago dohako behi txuletetan.

Baina erraza da behien krisiaren soluzioa: **Argi diezaguten, txuletoi bat jateagatik hilko garen ala ez.** Eta puntu. Argi eta garbi, hori da jendeak adituen ahotatik entzun nahi duena, hipotesi, uste eta iritzietan korapilatu gabe. Era berean, kutsatutako haragi xerra bakoitzeko zein-

tzuk sintoma izango ditugun jakin nahi dugu. Horrela, Ingalaterrako coffee shop-etan erositako txuletoiak dosifikatuko ditugu asteburuetan, porroak balira bezala. Eta salda prestatuko dugu hezurarekin, gobernuaren kontra egiteko.

Europako debeku eta murrizketen aurrean sagardotegietan aurkituko nauzue, Elliot Nessen garai lehorrenetan bezala, haragi hezurdun pusketaz aho bete hortz, zoraturta. Bien bitartean, bere entzefalopatia espongiforme guziarekin egiten dit eraso ametsetan irri egiten duen behiak. Eta supermerkatuan «gaixo gu, gaixo zuek» esaldia xuxurlatzen dit belarrira, irrika, gazta zatien kutxaren gainetik. Zorarena.

Inauteriak Nafarroan

Lizarra •

Palokiak berriro ere karrikara

Inauterietako pertsonaia bitxi hauek berriz ikusi ahal izanen ditugu egunotan

Joan den asteburuan Hungariatik etorritako kaldereroak ikusi ahal izan ziren Lizarrako karriketan kantukantari; oraingoan, palokiak kolorezko jantziak soinean ipinita dantza eta buelta ariko dira etengabe.

Ohitura denez, Lizarra Ikastolak goiza kolorez eta musikaz jantziko duen kalejira prestatu du. Bertan, Nafarroako hainbat herritako inauteriak irudikatzen dituzte: Lantzeko Miel-Otxin, Ziripot, Zaldiko eta Txatxoak; Unanuko mamuxarroak; Lesakako zakozarrak; Altsasuko momotxorroak; Erriberriko larrukiruak; eta, jakina, Lizarrako zirikatzaileak eta palokiak, ehunka paloki.

Sei urtetik gorako umeei ongi gordeta dute paloki jantzia biharko egunerako. Iletik gerri-raino kolore biziko oihala ipintzen dute buruhandi baten moduan. Gerritik belaunetara, alkandora txikia eta oihalezko bi beso eta bi esku; azkenik, bi hanka txiki. Pertsonaia bitxi hau barregarria suertatzen da oso; izan ere, gorputz txiki eta buru handi baten itxura hartzen du. Umeei leio txiki bat egiten

dute oihalean ikusi ahal izateko, eta bueltak aritzen dira goiz osoan abesti hau kantatzen: «Uri, uri, ura, Aldabika, Aldabika; Uri, uri, ura, Lizarrako lapurra».

Goizean ez ezik, arratsaldean ere jarraituko du inauteri jaiak, umeei hainbat mozorro aukeratzeko baitituzte kalera irteteko; gauean ere, gazte eta helduek ohitura horri jarraitzen diote. Lizarrako inauteriak asteartean amaituko dira, La Bota Elkartean. Bertan, jai txikia ospatuko da inauteriak agurtzeko eta Aldabika Lizarrako lapurra erreko dute.

→ Kristina Berasain



Bihar palokiek Lizarrako karrikak koloreztatuko dituzte.

KRISTINA BERASAIN

Bera

Inudeek artzainak bildu zituztenekoa

MENDE HASIERARAKO OSPATzen zen Beran inude eta artzainen besta. Orduan, gainerako ekitaldietan bezala, gizonek baino ez zuten parte hartzen. Gerora, berreskuratuz zenean, emakumeen parte hartzea bermatzerakoan, inauteri kutsua eman nahirik paperak trukatu zituzten. Mutilak dira inudez ateratzen direnak, eta neskak artzainez. Goiz partetik aterako eta han-hemenka gosaria hartu ondotik, Altxateko karrikan bazkaltzera bilduko dira guztiak, musikariak eta konpartsa lagun. Arratsaldean haurren txanda izanen da, Goloka taldeak Sorginak ikuskizuna emanen baitu 17:00etan Altxateko karrikan. Astelehenean zingararraultze eskean ibiliko dira herriko gazteak, eta goizgoizetik mozorroak eta orgak ikusiko dira karriketan baina. Bestak ordu tikiak bitarte iraunen du, eta iluntzean Eztanda taldeak alaituko du giroa.

→ Jon Abril

Lesaka • ZAKU-ZAHARRA

«Gure giroaz kutsatu nahi dugu inguruko jendea»

URTETAN ATERA IZAN DIRA ZAKU-zaharrak Lesakan. Aurten ere, euren ohiturari jarraiki, Lesakako karrikak hartuko dituzte. Jendea xaxatu asmoz aterako dira, eta bestagiroa paratuko dute.

■ **Urtean behin izaten duzue hitzordua. Dena prest iganderako?**

Prestakuntzarik handiena igandean bertan egiten dugu, nahiz lehenagotik ere izaten den zer prestatua. Arratsalde osoa eramaten digu lan horrek, baina gustura ibiltzen gara. Belarra bildu, zakuak prestatu eta pizontziak prestatu behar izaten dira. Egun berean, lanik handiena jantziak jostean datza.

■ **Eta ilundu ordurako, karrikara.**

Bai. Behin ilunduta joku gehiago ematen baitu. Besta giroko pertsonaia izaten da zaku-zaharra, inauteriak ere horretarako baitira. Gure arteko giroa ezin hobea izaten da, eta giro horretaz kutsatu nahi dugu in-

guruko jendea ere. Jendearekin sartzea izugarri gustatzen zaigu.

■ **Horrek, hala ere, hainbaten haserre eragin izan du.**

Bai, baina guk ez dugu fede txarrez jokatzeko. Jendea ere bestaren zati nahi dugu, eta musika eta dantza artean gure ingurura biltzea. Gure papera hori da, ezin dugu saihestu. Plazara biltzen denak badaki zer aurkituko duen bertan.

■ **Zaku zaharretan jende sobera ateratzen dela diote batzuek. Iritzi horretakoa al zara?**

Inauterietan jende kopurua mugatzea ez litzateke hagitik polita, baina ulertzekoa da, batetik josten ibili behar izaten dutenentzat lan handia delako, eta bertzetik, pilaketak ere izaten direlako. Ez naiz ni muga-



Zaku zaharrak kalea girotzen eta jendea xaxatzen Lesakan. • TTPI-TTAPA

tzearen aldekoa, baina behar bada, bertze bideren bat aurki daiteke, leku ezberdinetatik abiatuz, tenore ezberdinetan...

■ **Gaur egun zuen artean emakumeak ikustera ohitu bagara ere, ez zen hagitik ohikoa orain guti arte. Po-**

lemika ere eragin zuen erabaki horrek. Zer giro bizi da egun?

Polemika ez zen hain handia izan. Emakumeek, gainerako gizarte taldeek bezala, eta gainerako esparruetan bezala, zaku-zaharretan parte hartu behar dute. Ezin dugu pentsatu orain 100, 200 edo 300 urte, edo 25 urte izanda ere, paratutako ereduak derrigor iraun behar dutela. Gainera, aurpegia estalita eramaten dugu. Zer ajola du gizon edo emakume izan? Inauteriak denon topaleku behar dute izan, besta giroan bizitzeko.

→ Jon Abril

Inauteriak Nafarroan

Iruñea • Maria Trapo sutara,
Gora Mari trapu!

Frankoen eta
baskoien arteko
liskarretan du
oinarria
Alde Zaharreko
inauteriak

**Badira dozena bat urte Alde Zaharrean
inauteriak ospatzen ari direla. Egitarau
zabala dute, ez, ordea, asmo handirik;
auzo inauteria izaten jarraitu nahi baitute.**

tabernek urtero egiten dituzten ekitaldiekin jarraituko dute». Dena dela, Iratik larunbat goizeko ekitaldiak ditu nahiago, hurrei eskaintzen zaizkien hain zuzen ere. «Antolakuntzak indar handia egiten du horretan», dio. Azkenik, Iratik aipatu du Alde Zaharreko inauteriak auzoko inauteriak direla, ez Iruñea oso-koak. «Ez dugu handinahirik. Hala ere, gonbita egiten dugu ahalik eta jende gehien mozorro-urik etor dadin». Alde Zaharrean, gaurtik astelehena bitarte dago mozorrotzeko eta ederki pasatzeko aukera.

→ Asier Azpilikueta

ERDIA AROAN NABARRERIA burguan baskoiak bizi ziren, eta San Zerninen, frankoak. Hainbat gatazkaren ondoren, frankoek Nabarrerria suntsitu zuten. Alde Zaharreko inauterietan, beraz, Maria Trapo frankoak gaizkia irudikatzen du, eta Mari Trapu baskoiak, ongia. Maria Trapo gaur bertan paratuko dute Nabarrerriako iturrian, eta hor

izanen da astelehenean erre-arte.

Beti bezala, Alde Zaharreko kultur koordinadorak egitarau zabala prestatu du; 30 ekitaldi baino gehiago, mota guzietakoak, adin guzietako. Ekitaldien artean, Toni Iraki koordinadora-ko kideak hiru nobedade nabarmendu ditu: «Batetik, larunbate-

an, Duguna dantza taldeak Erriberriko inauteria antzeztuko du; plaza bakoitzean dantza ezberdina eskainiko ditu. Bestetik, San Gregorio, Sarasate, San Anton, Berria eta Tolosako Nabak taberne- inauterietan parte hartuko dute, eta Brasilgo koloreak ekar- ritzko dizkigute Iruñera. Era berean, San Zernin burguko

Arizkun • Ohiturari argazkirik ez!

Astearte goizean, ohi den bezala, hartzak eta mozorroek desfilea egiten dute

HIRU EGUNETAKO BESTA IZANEN DA Arizkun. Igandean, goiz-goizetik gazte ezkongabeak etxez etxe ibiliko dira puskek biltzen. Talde-ka, akordeoi, trikitixa eta eltzagoren soinua indartsuekin, herriko auzoak eta kaleak ibiliko dituzte. Herrian gelditzen diren artean batzuk gauzez mozorrotuko dira, haurrak izutzeko edota goxo-goxo norbaiten etxean kafea hartzeko. Hori bai, edonoren etxean sartuta, mozorroa kendu eta etxekoandre edo gizona agurtzea da giza legea.

Inauterietako ekitaldi nagusiak asteartean dira. Goizean, sagar-

dantza dantzatzen dute herriko gazteek. Ondotik, eguerdian hasi eta pertsonaia berezi ugari itzulia hasten dute. Hartza da ikusgarriena. Ardi larraz egindako izaki honek animalien bihotza dauka eta hori dela-eta arriskugarria izan daiteke. Besteak beste, Damak ere ateratzen dira, zuriz jantzitako pertsonaia misterioitsuak. Zoritzarrez, aspaldidanik desfilearen inguruan polemika sortzen da, argazkilaria eta telebista kamerari euren lana egiten utzi ala ez. Orain arte erantzuna ezezkoa izan da. Arizkundarrek inauteria masifikazioa eragotzi nahi du-

te, eta horretarako komunikabideetan ahalik eta gutxien atera nahi izan dute. Arizkongo inauteria ez zaio inori herrian sartzea debekatzen, ezta gutxiago ere. Bisi-tariak besoak zabalik hartzen dituzte, baina hauei errespetu berezia eskatzen zaie, inauteria ikusiz gozatu bai, baina herriko etxeetan mozorroekin sartzen ez diete uzten. Informatzeko eskubidea galaraziz inauteria bere horretan mantentzen bada, kazetariok bertzelako gaiak bilatu beharko ditugu.

→ Rakek Goñi



Hartzaren eraso hartzen ahal du Arizkuneko argazkia egiten duenak. • EGUNKARIA

Alde Zaharreko Inauterien egitaraua

Ostirala

20:00: Maria Trapo Nabarrerriako iturrian paratuko dute eta pregoia irakurriko dute.
20:30: Kalejira eta poteo euskalduna, auzoko karriketatik.
22:30: Eguzki Irratiaren inauterietako Maria Trapo, gaztetxean. Eraman ogia eta xerria.
01:00: JarautekERA. Larrain dantza Jarautean, Iratik Zagitara.

Larunbata

11:30: Haurrentzako txokolate jatea, Nabarreko plazan.
12:00: Kalejira ttikiak, plazatik. Trikimako taldeak dantzari ttikiak, gaitari eta txistulariak.
19:00: Erriberriko inauterietan antzeztzea, Duguna taldeak egina. Ibilbidea: 2 de Mayo, Nabarreko, Mercaderes, Txapitela, Gaztelu plaza, Comedias, Zapateria, San Frantzisko, Eslaba, Nagusia, Udaletxea, Burgu plaza.
19:30: 2001 Odisea en el espacio gaia hartuta, 12. Elkartasun Pasarela Nabarrerriko delo solidarioen milurteko berriko delo.
19:45: II. Elkartasun Pasarela Nabarrerriko delo solidarioen milurteko berriko delo.
00:30: Mozorro dantzaldia, Auzo Elkartearen.

Igandea

13:30: Bermatut edatea, auzoko tabernetan. Monton tabernetan hasita.
15:00: Mutilak neskez eta neskek mutiliz, San Ana plazan.
17:30: Herri dantzaldia, Jarautean.
21:30: Sardina jatea, Pellejeria txokoan.

Astelehena

11:00: Puska biltze ttikiak, San Frantzisko plazatik aterata.
17:00: Txokolate jatea eta askaria goizean haurturkoarekin, San Frantzisko plazan.
20:00: Maria Trapo eta gorrotagari diren gaizkizur erako dira eta desfilea egiten Nabarrerria plazan.

Ferratzaillea REGINA MARKOS, 34 URTE [OSTALARIA]

«Umeek berehala egiten dute atzera, gu ikustean»



■ Ostalariok beste ikuspuntu batetik ikusiko duzue festa, ezta?

Bai, lanaren aldetik, baina aurkitzen ditugu tarreak ere giroan murgiltzeko. Astelehenean, adibidez, ferratzaillez ateratzen naiz. Asteartean ezinezkoa da, izugarritzko lana baitago.

■ Ferratzaille, normalean, gizon helduek egiten dute; nolatan zu hor?

Bai, lehen ez zieten emakumei uzten. Niri hasieran ez zidaten uzten janzen diren lekura sartzen, baina orain dela bi urte jende gutxi zegoen eta niri esan zidaten. Orain bi neska gaude.

■ Nola sentitzen zara pertsonaia horren barnean?

Izugarria da. Lehendabizikotik urtean gozatu nuen pilo bat; batez ere, jendearen eta umeen aurpegiak ikustean. Gainera, ez

zaitu inork ezagutzen. Oso polita da.

■ Ferratzailleek ematen dute beldur gehien, eta zirikatzaileenak ere beraiek dira...

Bai, umeek berehala egiten dute atzera, nahiz ez dugun gauza handirik egiten; orrikarekin edo sardearekin zirikatzen dugu pixka bat, batez ere ezagunei eta argazkilariei.

■ Lau egun horiek pasatuta nola gelditzen da ostaturia?

Aste oso bat behar dugu ostaturia berpizteko, garbitzeko, eta den-dena goitik behera margotzeko. Lana ez da asteazken goizean bukatzen.

Egitaraua

Larunbata

Afaria eta dantzaldia, herriko ostaturian.

Igandea

Kalejira txikia, 14:30ean eta 19:30ean.

Astelehena

Helduen kalejira, 14:30ean; dantzaldia, arratsalde eta gauean.

Asteartea

Helduen kalejira, 14:30ean eta 20:00etan. Bukaera, Miel-Otxin erreko dute, eta zortzikoa dantzatzeko.

Zaldiko LUIS MARINELARENA, 29 URTE

«Txatxoek traba handiak jartzen dituzte Ziripot lurrera bota ez dezadan»

■ Nola eta noiz hasi zinen Zaldikoren papera egiten?

Bederatzirte nituela inauterietan txikia berreskuratu zen, eta helduek erraten ziguten ea zer egin behar genuen. Orain dela bost urte helduen Zaldikoak uzteko gogo zuen, eta nik hartu nuen bere papera. Baina beste norbaitek egin nahi baldin badu, ez dago arazorik.

■ Zaldikoren eginkizuna neketsuenetarikoa bat da, ezta?

Bai, oso neketsua da, baina ikusten baduzu oso nekatuta zau-

dela, lasaia igozten zara; beste urtean zaudenez, ez zaitu inork jarritzen, ez deus erraten.

■ Zein da zehatz-mehatz zure egiten duzun papera?

Korrika egin, Ziripot lurrera bota, gainean salto egin, zirikatuta... Baina, azkeneko urte hauetan, txatxoak ohitura txarrak hartzen ari dira: ikusten nautenean, Ziripoti eusten diote eta ez didate botatzen uzten. Berez zaila baldin bada, imajina ezazu horrela. Batzuetan bueltara ibili behar izaten dut txatxoak despistatze-

ko. Dena den, nekatuta dagoenean berak eskatzen dit botatzeko.

■ Zurea neketsua da, baina Miel-Otxin erraldoia eramateaz da makala.

Ez, ez, Miel-Otxin bost txatxo- en artean eramaten dute, txandaka. 45 kilo inguru pisatzen du, baina okerrean da gaizki banatuta dagoela pisua. Behin pentsatu genuen goma-aparrez betetzea edo puzgarri bat izan zitekeela, baina ez litzateke gauza bera izan.

■ Zerbait aldatu edo gehituko zenieke inauterietan?

Bai, kondairan zati bat dago orain egiten ez dena. Erraldoia hil aurretik epaiketa egiten zitzaion, eta sententzia entzutean dardarka jartzen zuten. Orduan, apeza agertzen zen konfesatzeko. Politaz litzateke hori berreskuratzeko.

■ Inauterietako gertaera bixiren bat ezagutzen duzu?

Orain dela urte aunitz, emakume itxurako Miel-Otxin egin zuten urte batzuetan. Astearteko parrandan egin eta goizaldeko laurak inguruan erretzen zuten Miel-Otxin anderea.

Herri herri

Arrotxapea •

Bihar, 12:00etan, inauteri besta egiten dute Maiteinduen parkean. Herri bazkaria Arrotxapea peñan izanen da, 14:30etan. Eta trikitiaz lagunduriko kalejira 17:30etan aterako da.

Barañain •

Gaur Zaragozako Pai taldeak haurrentzako ikus- kizuna eskainiko du Udaletxe plazan 17:00etatik

aurrera. 20:00etan herriko kultur kolektiboen kalejira Haizea elkartetik abiatuko da. Larunbatean ere aterako dira, 19:30etan herri zaharretik, eta ordubete geroago Jacobo de Licras erreko dute udaletxe plazan.

Berriozar •

Gaur, 17:30etan, haur jaialdia egiten dute Kiliki taldearen laguntzaz Eguzki plazako karpan. 20:00etan Txolin dantzaren entseiu orokorra,

karpan ere. Larunbatan, kalejira 11:00etan aterako da Eguzki plazatik eta ordu erdi geroago haur- rrentzako gaztelu puzgarriak egonen dira karpan. Inauterietako kalejira eta Txolin maskarada 18:00etan izanen da Turrillas kaletik Eguzki plaza- raino. 20:00etan dantzaldia egonen da Iruña Band taldearekin. 20:45etan mozorro txapelketa- ren sariak banatuko dituzte. Zezensuskoa 22:00etan aterako da. Eta inauterietako afaria

Zulo Anen da; aholkatutako mozorro Bur

Gaur, inauteri dute Hilarion Eslaba ikasteko 16:30etatik 20:00etara. Igandean istorioa ezagutzeko aukera dago. El Buho Sabio ipuin taldearekin, astelehenean Lukas Aierbekoa eta konpartsa Udaletxe plazatik aterako da.

an, Lukas Aierbekoa epaitu eta hilen dute Ezkabazabal plazan.

Noain •

Gaur, 19:30etan Institutuarien aparkalekutik aterako da mozorroren desfilea, Ziraukiko Galtzarra txar- garekin. San Miguel plazan Miel-Otxin erreko dute, 20:30etan. Ordu erdi geroago, txistorra banatuko dute, eta 23:30etatik 03:30etara mozorroren dantzaldia izanen da Igeritokiko gelan, Gospel taldearekin.

Zizur Nagusia •

Bihar, 18:00etan, kultur etxetik abiatuta, Tartalo paseatzera aterako dute, baina Tartalok ihes egiten die. Astelehenean, 19:00etan, txistorra jateaz batera, Tartalo bilatuko dute Kontzeju- etxe zaharrean, eta asteartean, 19:00etan, aurkitu egiten dute. Tartalo epaitu eta erre ondoren inaute-opilak banatuko dituzte Kontzeju- etxe zaharrean, eta, gero, zezensuskoa aterako da.



urdairen
mintzoa

Xabier Laraburu

Dale Earnhardt

Aspaldian Teleberri-n esaten zuten sinesten nuen. Esaten zuten, adibidez, «eta orain berri hits bat, hiru auzokide hil zituzten bart za- rata egiteagatik». Eta ondotik entzuten nuen hilabeteetan zarata egiten zutela telebistako zein irratiko bozgorailuekin (eta baita gitarra elektrikoarekin ere) eta hiltzaileak salaketak paratuak zituela eta horrela, eta, azkenean, eskopeta hartu eta goiko pisuan bizi ziren hiru gazteak erail zituela, eta igogailuan zegoen kristoren odol putzua ateratzen zuten irudietan eta berriz ere oso berri ikaragarria eta krudela zela erreplikatzeko zuten eta nire golkorako esaten nuen nik: «Ze pasada!». Aspaldian.

Orain dela asko. Lehenago, Orain, aldiz, horrelako bat entzun eta, nahiz eta Teleberri-koek oso berri latza dela hirutan edo erreplikatu, nik «bazen garaia» pentsatzen dut. Esan nahi dut dagoeneko Teleberri-koen hitzak ez ditudala ispilubatean bezala erreplikatzeko. Esan nahi dut nire barrutik ateratzen zaidala beste ikusmolde bixi hau, eta, batzuetan, erreplikatu ere egiten dut: «Bazen garaia! Gehiegi agoantatu du gaixok! Pazientzia handikoa!». Eta orduan, barkatuko didazue, Teleberri-k dioenaren kontrako pentsatzen dudala konturatzeko naiz, hau da: berri ona dela eta ez txarra. Kuriosoa da al- daketa hau. Gaur periodiko batean irakurri dudana berriarekin gauza bera gertatu zait, aizue. Periodiko- an esan dute auto lasterketan ibiltzen zen tipo bat, Dale izene- koa, Winston Kopako lasterketan hil dela, eta oso berri latza dela hori. Eta morroi honi pasa den hilabetean galdetu ziotena atera dute: «Zer emango zenuke Wins- ton Kopa zortizgarrenean irabazte- agatik?». Daleren erantzuna hauxe izan omen zen: «Nire amaren gainetik pasatuko nintzake, nire emaztea aurretik eramango nuke eta nire semea lurperatuko nuke ti- tulu berria irabazteko». Beno, kon- tua da lasterketa horretan 300 kilo- metroko abiaduran zihola hil zela tipoa. Eta nik nire golkorako esan dut: «Bazen garaia!». Esan nahi dut berri ona irudituko zaidala, eta ez txarra. Gauza kuriozkoa da hori, ezta? Ez dakit zuei gauza bera gertatuko zaizuen. •

Klasiko bitxi • arront klasiko

Joxemiel Bidador

Itsuago ausartago: putze izan eta uzterra uste (1)

Gutti dakienak ardura jakintsun dio erranairuak, ordea, eta, makurragoa dena, hauek badakite egia erdi ustelak aipatuz are gezur borobilagoak aupatzen, irakaskintza hauetatik beretik aterako diren leitu berri itsutuak ahoan bilorik gabe astakirtenkeriarik lotsagarrienak enpo haizatzeke gauza izanen direlarik.



Falta zitzaguna gero, bazterrak are inarrotzenagotzeko, *suari iraungitzeko olio emaitza* bezala, Axular handiak zioenez. Ez da gurea gar kementsuko sua, ez eta nahi izan ere, haatik isilik egotea mingarriegi zaiguke honezkerro, eta horretan geure hitz apala ozenagotzea dukegu helburu ezertarako balioko ez duelako jakitun bagara ere.

Ez da zalantzarik UPN bezalako alderdi politiko batek nahi duen guztia egin dezakeela bere biltzarretan. Halaxe egin izan du beti, eta halaxe egin zuen berriki burutu zuen bere azken biltzarrean. Gu ez gara UPNkoak —ez dakit jada zoritxarreko gauza ote denetz baina—, eta kazetetan irakurririkoari esker badakigu, aldiz, azken biltzarrrera hartaratu zirenei, eta beste opari xebrerekin batera, liburu bana eman zietela, harritzeaz gainera, bestalde, itxaropenerako argi izpi txikirenik ere eman ez ziguna. Eta hala izan da, espero bezala.

Biltzarrean banatu zen liburu *Navarra y el nacionalismo vasco* izenburuko entseguia izan zen. Entseguarena egileek berek bere liburu hala definitzen dutelako diogu, ez beste ezerengatik. Egileak José Manuel Azcona Pastor eta Joaquín Gortari Unanua dira. Lehenbizikoa Faltzesen jaio zen 1962an, eta egunean Bizkaiko UNE-Den zein Madrilgo Juan Carlos Erregea Unibertsitate Publikoan dihardu, munduarteko historia garaikideko irakasle. Bigarrena, ezagunagoa ausaz,

Gesalazko Muezen jaio zen 1931n, eta Nafarroako Gobernuaren idazkaria dugu 1978az geroz. Liburua, *Ensayo histórico-político sobre las señas de identidad originaria del Viejo Reino* azpi-izenburua harroki daramana, berriz, Juan Pablo Fusik zuzentzen duen Biblioteca Nueva argitaletxe madrildarrak inprimatua da, Principe de Vianak diruz lagunduta naski. Egileek 2001eko urtarrilean sinatzen dute testua; beraz, labur joan dira inprimaketa lanak, aise ikus daitekeena edizio honen itxura marketsari erreparatuta, azalean 1572ko Nafarroako Erresumaren armeria liburuaren orrialde bat eskaintzen digute, eta barnean, berriz, batere erakarriak agitzen ez diren zuri-beltzeko argazki klasikoak dituzten zortzi orri. Txundigarri samar gertatu zaigu eta, hortaz, ezin isilik eraman, Iñaki Iriarteren *Tramas de identidad* literatura nafarraren gaineko liburu eder eta findua argitara eman ostean hau bezalako foiletoia atera izana. Serioagotzat genuen Fusi baina. Izan ere, euskal unibertsuari aitziko liburuak aparteko generoa osatzen dutela onar daiteke, baina horretan

ere mailak badaudela onartu beharko lukete, baita idatziak oro paperean pausatugatik ere argitaragarriak ez direla. Oraikoa ez da horrela gertatu, bistan da, eta argitaratzaleak zeri aiduru so dauden aise idurika dezakegu, tamalez ere.

Diogunaren frogarik sendoena liburu bera da, eta ezer esan gabe edozein irakurle normal gurekin bat etorriko delako segurantzan bagaude. Ordea, eta irakurri aurretik bihoaz hemen liburu honek eskaintzen dizkigun eta ez dizkigun berri laburra. Hasteko, nahasmendua aipatu beharra dago, lanari hasmentan ematen dion aurkibidea ezin baita korapilatsuagoa izan. Botika dirudi, ordena jakin bati jarrai gabeko mondongoa. Hasiera latza bada.

Eta hasieran ere, Agirre Baztan iruzkinduz, Nafarroaz nafarrek duten kontzientzia argi uzten digute zer gerta ere: "*Navarra nace en la enculturación y socialización primaria emocional en el seno de la familia, y también en la escuela primaria en la que a través de la explicación y el conocimiento de la historia del Viejo Reino se ve el nexo conductor de nuestro pasado, el reino, el virreinato, la provincia y la comunidad foral. Y uno de los elementos más importantes de nuestro pasado es la identidad política expresada a través de la foralidad dentro de la españolidad*". Añamendikoaren ezean, Britainiarrarekin geratzen gara.



panpilonia zirkus

Pello Argiñarena



Iruñean hamaika dira komun publikoak • MIKEL SAIZ

Kremailera jaitsi

SARTU BEZAIN PRONTO LIXIBAREN usaina eta bi aukera begi aurrean. *Damas* edo *Caballeros* (Damak edo Jaunak). Ezker edo eskuin. Erdian, berriz, Dolores. Iñaki Gabilondorekin puntua egiten bere gela-txoan. Berogailuaren ondoan eserita. Ilobatxoarentzat enegarren jertsea amaitzeaz dauka. «Hementxe egoten naiz lasai; hala ere, 28 urte daramatzat eta erretiroa hartzeko irrikan nago».

Iruñeko Basotxoan, *Elparaguas* izeneko bus geltokiko komun publikoetan egiten du lan Doloresek. Lixiba, *Don Limpio*, *Spontex* eta eskuak dira bere lan tresna bakarra. «Bi orduz behin egiten dut garbiketara, eta, bitartean, hona etortzen direnei zeharka begiratzetaz diet». Egun, ez da deus ere ordaindu behar barrenak husteko; hala ere, ez da beti horrela izan. «Gizasemeek libratzeagatik soilik pagatzen zuten, emazteek, ordea, beti. 1973. urtean, esate baterako, pezeta bat kobratzen zen paper puska baten truke». Beste garai batzuk ziren, eta denok gogoan dugun *El elefante* paper marroi latza erabiliko zen, ziurrenik. Hura bai tortura!

Batik bat gizaki arrek erabiltzen dute zerbitzu hau. Kremailera jaitsi eta listo! Haren esanetan, «emakumezkoak gutxiago etortzen dira, baina gehiago zikintzen dute: konpresak, tanpoiak uzten dituzte eta, bide batez, makilatu ere egiten dira». Dena den,

urte sasoi honetan ez du jende askok bertara jotzen, udan azaltzen da, batez ere. «Dudarik gabe, garairik okerrera sanferminak dira, 24 orduz dauzkagu zabalik komunak, ikaragarria da, benetan. Lagun asko mozkorturik sartzen da, oka egiten hasten dira, edonon; etortzen diren drogazaleak ere ez dira gutxi. Aterpean lotan ere gelditzen da hainbat sarritan».

San Lorenzoren elizaren aurrean dauden komun publikoak ez dira bakarrak Iruñean. «Ziudadela, Foruen plazan, autobus geltokian, Erorien monumentuaren parean, Gaztelu plazan, parke botanikoan, Sarasate pasealekuan, Media Lunan, Gurutze plazan, Antoniuttin eta Eslaba kalean ere badira». Dutxa hartu nahi izanez gero, aipatu azken bi toki horietara joan beharra dago.

Bestetik, jaietan paratzen diren komun berdeen tanke-rakoak jarri zituen duela bi urte Iruñeko Udalak. Itxura abangoardista eta kubista daukate, baina ez dira kasik erabiltzen. Sartu aurretik ohar bat irakur daiteke: «Komun hauek automatikoki garbitu, desinfektatu eta lehortzen dira erabiliak diren bakoitzean. Hamar urtetik beherakoek lagunduta sartu behar dute».

Pixalarria arintzeaz gain, beste hainbat ekintza egin daitezke bertan, emozioa eta morboa maite badituzu, behintzat.

Ziria

• Motxorrosolo •

Mozorroak

ERANTZUN BAT EMAN BEHAR ZUEN. BARRUTI HORREN JABE bakartzat du bere burua. Alta, nekez heziko du ustezko barrutia; zorionez, askatasunez jokatu ohi da euskalgintzaren munduan. Hamaikagarrenez orpoa erakutsi dioten honetan mozorroa jantzi behar zaio erantzunari. Jakina, mozorro garaijan gaude. Gauzak desitxuratzen iaioa denaren garaian.

Salvador Gutierrez

BILAKETA KULTUR ELKARTEKO PRESIDENTEA

«Ni ere harritzen naiz hamalau mukizu nora heldu garen ohartzean»



s o s l a i a

25. urteurreneko ospakizunetan murgilduta dabil hilabeteotan Agoizko Bilaketa kultur elkarteak, hainbat kontzertu eta erakusketa prestatzen. Ezagunak dira haien nazioarteko literatur lehiaketak eta zaharrentzako unibertsitatea, baina gazteekin eta kulturaren beste alor batzuetan ere aritzen dira lanean. Salvador Gutierrez presidentea izan zen sortzaileetako bat.

JOXE LACALLE

Bilaketan ez dagoenean Iruñeko Gazteriaren etxean egiten du lan Salvador Gutierrezek. Gazteekin lan egitea gustuko duela dio, «bestela ezingo nuke hemen jarraitu». Dena dela, Iruñeko lana eta Bilaketa bereiztea nahiago du, «bata nire lan ordaindua da; bestea, boluntarioa».

Bilaketa koordinatzea egun errazagoa dela uste du Salvador Gutierrezek: «Besteak beste, Jose Hierro eta Almudena Grandes ekartzea lortu ondoren, errazagoa da orain beste norbait etor dadin lortzea, normalean kobratzen duena alde batera utzita».

«Gurea lan boluntarioa den heinean, edonoiz boluntarioak desagertuz gero gu ere desagertuko ginatekeela badakigu»

Bilaketa boluntarioei esker bizi dela azpimarratu nahi du Salvador Gutierrezek: «Nahiz eta orain diru laguntzak jaso, urte askotan denetarik zozketatu eta antzerki saioak prestatu behar izan ditugu pezetak batzuk lortzearen».

■ Nola sortu zen Bilaketa?

1976an sortu genuen Agoitzeko 14 gaztek, kulturaren, eta gazteen eta zaharren esparruan gabezia batzuk sumatzen genituelako. 16 urteko gazteen ausardiaz hasi ginen lanean, eta bi gauza behintzat ondo egin genituen; lan alorrak banatu eta elkartearen izena aukeratu.

■ Nondik dator Bilaketa izena?

Izena euskaraz nahi genuen, itzuli behar ez izateko, eta gure filosofiaren inguruko zerbait esango zuena. Zer nahi dugun jakin arren, beti gauza berrien bila aritzen garenez, *Bilaketa* izena otu zitzaigun. Oraindik ere horretan dihardugu eta izenak badi zentzurik, ez da modaz pasatu. Beste gauza batzuk, aldiz, aldatu dira, aurrekontua eta jendea besteak beste: 1976. urtean, 50.000 pezetatako diru laguntza izan genuen, eta iaz, 18-20 milioi ingurukoa.

■ Eta jendea?

Hamalau lagunek ekin genion lanari, eta egun mila baino gehiago gara, guztiok boluntarioak. Hasierako parketik urrun, gaur bi egoitza dauzkagu Agoitzen, gureak ez diren arren. Baina horrek ez digu axola erabilgarriak eta finkoak direlako.

■ Parkean biltzen al zineten?

Bai, eta euria ari zuenean zaharren egoitza erabiltzen uzten ziguten. Hori beti eskertu diegu, eta han gauza asko egiten saiatzen gara. Bi urte geroago parrokiak gela bat utzi zigun. Hiletan handik alde egin behar izaten genuen, gaubeiletako gela baitzen.

■ Herri bateko elkarteak nola bilakatu da nazioarteko?

Oraindik ni ere harritzen naiz hamalau mukizu nora heldu ga-

ren ohartzean. Hasieratik genuen Agoitzera ez mugatzeko nahia, eta han ez ezik, Lizarran eta Iruñean ere egiten dugu lan. 12. poesia, pintura eta eleberri lehiaketaz geroztik bihurtu zen nazioarteko (eskultura lehiaketa geroagokoa da). Izan ere, lehenago Frantziatik zein Italiatik heltzen zitzaizkigun parte hartzeko lanak, eta horiek baztertu behar genituen. Eskaerari erantzutea erabaki genuen.

■ Hori al da 25 urteotako aldaketa nagusia?

Ez dut uste. Edukiari dagokionez, zaharren alorrean eman pausoa azpimarratuko nuke: 1998. urtean haientzako programa unibertsitarioa sortu genuen. Gainera, gurea ez da zaharrentzako dauden beste unibertsitateak bezalakoa, ez baititugu eskolak zaharretara mugatzen: edozeinek esku har dezake, nahiz eta 20 lekuetatik hamalau 55 urtetik gorakoentzat gorde. Gerta daiteke gela berean amona eta biloba elkartzea. Irakaslearen artean ere gauza bera gertatzen da, jubilatutako eta lizentziatutako berriak baitaude. Gure ekintzak guztiei irekita daude beti.


■ Aurrera begira aldaketarik bilatzen al duzue?

Orain egiten dugunari eustea dugu helburu, lan boluntarioa den heinean, edonoiz boluntarioak desagertuz gero gu ere desagertuko ginatekeela bai baitakigu. Hala ere, 25 urteotan haien kopuruak gora egin du beti; niki ez dakit nondik irteten den hainbeste jende. Proiektu zehatzak pentsatzeko garaian ere, kontuan hartu behar izaten dugu horiek aurrera eramateko jenderik izango denetz. Egungo boluntario guztien lana koordinatzea da gure eginbeharra, eta nahikoa dugu bide honetatik jarraitzearekin. Dena den, horrek ez du esan nahi gauza berririk egingo ez dugunik; Bilaketaren webgunea prestatzen ari gara orain adibidez.

■ Denbora asko kentzen al du Bilaketan aritzeak?

Bai, hasierako jende askok utzi behar izan du, lana eta familiarengatik denborarik ez zutelako hemen jarraitzeko. Orduko hamalau lagunetatik neuk bakarrik jarraitzen dut, eta 20. urteurrenean erretiratzea ere pentsatu nuen, baina ez da erraza hainbeste jende mugitu eta gero, haiek lanean utzi eta zu erretiratzea. Inersoko sari bat jasotzera joan nintzenean, behingoz erretiratzeko ez ote ziguten eman saria galdetu nuen, baina hori egiteko asmoa izatekotan saririk ez genuela izango esan zuten arduradunek.

→ Arantzazu Zabaleta



Nafar Kronika

Martxelo Sotes

Nafar Photomatoia

Nafarroa lurralde zabala da; aberatsa eta askotarikoa. Nonbait, Nafarroan ia Europa osoko klimak dauzkagu, mediterraneoarretik atlantikora. Itsas paisaia izan ezik, gaineko guztiak ikus ditzakegu: elurak zuritutako mendi tontorrak, gari eta garagar soro amaigabeak eta basamortua. Nafarroako izadiak kolore guztiak dauzka, nahi adina nahasketa aberasgarriak egin ahal izateko.

Galdera da: nafar polikromia hau aintzat hartuz, zergatik egokitu zaigu zuri-beltzeko politika? Zergatik horren jatorri iluneko politikariak? Zergatik horrenbeste politikari grix?

PPrik gogorrena tokatu zaigu. Eta ausartena. Ezjakintasunak sortzen duen ausardiaz politika urdina egiten duena. PSOerik zuriena dugu. Bere jatorri gorria zeharo ahanztuta duena. Bi horiek dira boz gehien biltzen duten partiduak, zer egingen diogu? Hau *marroia*!

Hizkuntzetan oparua izan da betidanik Nafarroa: euskara, latina, nafar erromantzea (euskaldunek latina erabiltzean sortutako hizkuntza), arabiera, judua, okzitania, frantsesa... Aniztasuna omen da erradikalismoaren aurka botikarik hoberena. Beraz, aniztasuna bukatu nahi izan dutenak erradikalismoak jota ez ote dira izan?

Hizkuntzak ezin dira beste hizkuntza batzuen gainetik inposatu. Modu naturalean ikasi eta erabiltzeko dituzte herritarrek, haiek horrela nahi izanez gero. Zaila da hizkuntza bat bide artifizialen bitartez piztu edo bultzatzea. Hizkuntza suntsitzea, ezabatzea, aldiz, artifizialki manipula daiteke: legeak, debeku neurriak, erabilera murrizketak...

Sanzek euskara atzerriko hizkuntzen parera zokoratu du Nafarroan. Donostiako *El Diario Vasco*-k joan den abenduaren 12an kaleratutako alean topatu genuen lerroburua da. Kontxo! Horrek Arzalluzek bota zituen adierazpen batzuk dakartzkit gogora. Izan ere, On Xabierrek adierazpenak bota egiten ditu, bertsolarien bertsoa botatzen duten modu berean, sarritan poto eta guzti. Mallorcako alemaniarrei egiten zien aipamen. Ez zuen astakeria handirik esan, baina sekulako kalapita eragin zuen, batez ere Argaren bazter honetan bizi direnen upenartaren artean. Dena dela, foru argazkian *spaghetti western*-etako matoia balitz bezala, gaiztoa eta itsusia, biak bateratuta (ona kanpoan utzi behar harko dugu) gure lakandelaria dugu.

MUSIKA

► **Zangoza:** Petti kantari beratarra Karmengo auditorioan izanen da gaur, 20:30ean.

► **Iruñea:** La Rana Toro taldeak Cotton Club tabernan joko du gaur, 23:00etan.

► **Iruñea:** Korrika Kulturalaren baitan, Benito Lertxundik kontzertua eskainiko du asteartean, 20:00etan, Gaiarre antzokian.

► **Burlata:** El Bicho taldeak Black Rose tabernan joko asteartean, 20:30ean.

ZINEMA

► **Iruñea:** Karrikirik antolatu zinemaldiaren baitan, gaur, Murielen ezkontza filma eta Securitass angelorum film laburra eskainiko dituzte, 20:00etan, Golem Baiona zinematokietan.

PAILAZOAK

► **Iruñea:** Takolo, Pirritx eta Porrotx pailazoen Parrandan lan berria aurkeztuko dute bihar, 17:00etan eta 19:00etan, Gurutze plazako Mikael aretoan.

HITZALDIAK

► **Iruñea:** Asteazkenean, Pablo Joxe Aristorenak eta Kike Diez de Ultzurrunek Nafarroako bertsolaritzaren historiaren inguruan hitz egingen dute 20:00etan, Zaldiko Maldikon.

LEHIAKETAK

► **Elizondo:** Baztandarren Biltzarra iragartzeko kartel lehiaketara lanak aurkezteko epea martxoaren 3an bukatuko da. Kartelean honako testu honek agertu behar du: Baztandarren Biltzarra 01. Elizondon, uztailearen 22an. Eskuarak batzen gaitu: Kartelaren neurria 50x70 zentimetrokoa izan da gehien jota. Offset sistemak

onartzen dituen teknika eta kolore guztiak erabil daitezke. Irabazleak 50.000 pezeta eskuratuko ditu (2.000 libera). Lanak helbide honetan entregatu behar dira: Baztandarren Biltzarra Elkarte, 22 PK, 31700 Elizondo.

ERAKUSKETAK

► **Atarrabia:** Gaur da Cesar Guerra argazkilariaren Cuba 1994 erakusketa kultur etxean ikusteko azken eguna, 17:00etatik 21:00etara.

► **Barañain:** Argazki lehiaketako lan hautatuak Kultur Etxean

ikus daitezke gaur, 18:30etik 20:30era.

► **Mutiloagoiti:** Xabier Dean margolariaren Lurra kromatika erakusketa dago kultur etxean, asteazkena arte. Astelehenetik ostiralera, 18:00etatik 21:00etara; larunbatetan, 19:00etatik 21:00etara, eta jaiegunetan, 12:00etatik 14:00etara.


► **Burlata:** Euskal Herriko bizitza tradizionaleko irudiak argazki erakusketa dago ikusgai Joakin Azkarateko kultur aretoan, martxoaren lehena arte. Asteartetik larunbatara, 19:00etatik 21:00etara, eta

jaiegunetan 12:00etatik 14:00etara.

BESTELAKOAK

► **Arroitz:** Tostadaren Eguna ospatuko dute igandean. Jesus Mauleon idazleak pregoia irakurriko du 10:30ean Trujal Mendian, eta ondoren olio dolareetako zipotza irekiko dute. Olio, tostadak eta Nafarroa guziko beste hainbat produktu probatzeko aukera izanen da. Bitartean, 11:00etatik aurrera, frontoian Euskal Herriko gizonen sokatira txapelketa egingen dute, 640 kilo artekoa.

• MIKEL SAIZ



Antxitonea

Iragan larunbatean Euskal Herriko trinketik zaharrena omen dena berriz zabandu zuten: Elizondoko Antxitonea. Bihar, larunbatearekin, Europako hizkuntzarik zaharrena omen dena legearen bidetik degertaraz ez dezaten mani+esta egingen dute. Oinarriak taldeak eta eremu euskalduneko berrogeita hamar bat alkatek egin dute manifestaziorako deia. Alkate asko dira, baina ez eremu euskalduneko guztiak. Orreaga, Luzaide, Ultzama, Auritz, Imotz eta Aezkoako zenbait herritako alkateek ez dute euskara defenditzeko deia egin. Eurek jakinen dute zergatik ez duten sinatu. Baina argigarria da ikustea nola eremu euskalduneko euskara galzorian dagoen lekuetako alkateek nafarren hizkuntzari batere begirunerik ez dioten. Nahiago dute partida kanpotik ikusi, eta ez zaie inondik inora burutik pasatu trinket zaharra berriz ere eraikitzea.